



2009ko otsaila

EUSKARA  
B2

**Azterketa idatziak hiru atal izango ditu :**

<u>Azterketaren atalak :</u>	<u>Denbora</u>	<u>Gehieneko puntuazioa</u>	<u>Gaiztuzko</u>
A atala: Testu idatziaren ulermena	60 m	30	20
B atala: Entzundakoaren ulermena	40 m	30	20
C atala: Idatzizko adierazpena	80 m	30	20

- Atal bakoitza baztergarria da, guztiak gaiztatu behar dira mintzamen proba egin ahal izateko.
- Ataletako baten puntuazioa %50ekoa bada, beste ataletako puntuazioarekin konpensatuko da.

## A eta B atalen erantzun orria

Izena:  Abizenak:

N.A. zenbakia:  -

Telefona:

**Erantzunak orrialde honetan markatu behar dituzu.** Adibidea:  a  b  c

**A atala: testu idatziaren ulermena**

01. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	02. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	03. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	04. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	05. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	06. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
07. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	08. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	09. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	10. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	11. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	12. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
13. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	14. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	15. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	16. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	17. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	18. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
19. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	20. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	21. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	22. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	23. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	24. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
25. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	26. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	27. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	28. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	29. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	30. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c

**B atala: entzundakoaren ulermena**

31. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	32. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	33. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	34. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	35. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	36. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
37. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	38. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	39. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	40. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	41. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	42. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
43. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	44. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	45. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	46. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	47. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	48. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c
49. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c	50. <input type="checkbox"/> a <input type="checkbox"/> b <input type="checkbox"/> c				

## A atala: testu idatzien ulermena

### 1. ARIKETA

*Hurrengo testuari buruz ulermen galdera batzuk dituzu. Hiru aukeren artean erabaki zein den testuaren esanahiarekin ondoen egokitzen dena.*

(7 puntu)

**Ez betetzeko legeak.** *Markos Zapiain. Bloga, 2008/05/02.*

Hiritar eredugarri izateko ez da aski legea txintxo-txintxo betetzea. Elkarrekin bizitzen ikastea, legea goitik behera betetzea baino askoz ere konplikatuagoa eta interesgarriagoa da. Herri bateko kide peto izateko ez da aski legedi esplizitua ezagutzea, ezinbestekoa da jakitea legeak debekatzen duen arren denda jakin batek jai-egunetan ere irekitzen duela, eta legea gorabehera guztiok onartzen dugula. Gure gizartean bizitzen jakiteak eskatzen du ondo bereiztea ez bakarrik legea noiz bete behar den eta noiz ez, baizik halaber kontuan hartzea eta ez ahaztea legea bete dadila eskatzea sarritan umekeriatzat jotzen dela; are gehiago, eskakizun horretan tematzeak agintariekin arazoak ekar diezazkizukeela.

#### **1. Agintariak eta legea:**

- Agintariekin arazorik izan nahi ez baduzu, legea bete egin behar duzu.*
- Agintariek legeak zorrotz betearazten dituzte.*
- Hobe duzu lege guztiak bete daitezela eskatu ez agintariei.*

Nik ezagutzen ditudan herri guztietan, guzti-guztietan gero, badago igandez estraofizialki zabaltzen duen dendaren bat, denoi inoiz primeran etorri izan zaigunez, konpetentziakoei barne, inork salatzen ez duena. Eta aise irudika liteke ze bekozko iluna jarriko luketen alkateak edo udaltzainek, hiritar batek legea betearazteko eta denda horiek igandeetan itxiarazteko exijitzen tematuko balitzaizkie.

#### **2. Legea betetzeko eskatuz gero, udaltzainak...**

- haserretu egingo lirateke.*
- kargutik kendu egingo lituzkete.*
- lotsatu egingo lirateke.*

Hortaz, hiritar jator izatekotan zenbaitetan legea betetzea ez da batere komeni. Alde batetik, desobedientzia obediencia baino etikoki zintzoagoa izan daitekeelako. Bestetik, agintariak, legea bete dadin nahi izanik ere, badakielako legea berez, edo bizi dugun egoeratik, ezin dela bete (eskatu bestela autogintza 120 kilometro orduko baino lasterrago joaterik ez duten autoetara muga dadila, edo paper ofizialetan erosi duzun etxearen benetako salneurria ager dadila, edo presoak etxetik hurbil espetxera ditzatela...). Azkenik, legea edo agindua aldarrikatzen duenak legea ez dadila bete nahi izan dezakeelako, nahi hori ezkutatzera behartuta dagoen arren.

#### **3. Legea lege, baina...**

- batzuetan legegileak ere ez du legea betetzen.*
- beti konforme egon ez arren, legea bete egin behar da.*
- hobe da batzuetan legea bete ez.*

Azken konplikazio hau ez da Estatura mugatzen. Guraso naizen aldetik, maiz gertatu izan zait alabei zerbait agindu eta nahiago izatea agindua ez dezaten bete. Batzuetan ikaragarria litzaidake obedituko balidate eta biziki pozten naiz aginduari muzin egiten asmatu dutela ikusten dudalarik, aitortzen ez diedan arren, horrek adierazten baitu gure gizarte korapilatsu honetan biziraute ikasten ari direla.

**4. Alabei aginduak ematen dizkie eta...**

- a) *batzuetan ez daki zergatik egin duen ere.*
- b) *egoki ez baderitzote, ez dute agindutakoa betetzen.*
- c) *gura dutena egiten dute.*

Hainbat legek eta aginduk hauxe iradokitzen diete azpitik hiritarrei edo seme-alabei: “ez ezazu bete, ez zaitetz ergela izan, baina konpondu zaitetz ni ez konturatzeko. Konturatzen banaiz eta zu ez bazara konturatzen ni konturatu naizela, ezikusia egingo dut beharbada. Baina argi ibili, zu harrapatu eta gainera konturatu naizela ohartu zarela garbi balego, zigortu beharko zintuzket”.

**5. Lege-haustek zigorra dakar.**

- a) *Konturatu edo ez, lege batzuk ez dira bete behar.*
- b) *Legea hautsi duzula konturatzen badira, beti zigortzen zaituzte.*
- c) *Legea hautsi duzula jabetu ez badira, zortea izan duzu.*

Txikitandik eta pixkanaka-pixkanaka ikasten goaz zein den ezinbestez bete beharreko legea edo agindua, zein legek ez duen garrantzirik, zein agindu ahal den ez obeditu (baina kontuz, baliteke gurasoek nahiago izatea ez-obeditze horren berririk ez jakin), zein den agintariak ez betetzea nahiago duten legea, aitortu ez dezaket arren...

**6. Gurasoek eta agintariak:**

- a) *apurka-apurka ematen dizkizute hainbat agindu.*
- b) *ez daukate iritzi argirik eta euren aginduak zentzunbakoak dira.*
- c) *ez dizute esaten zein lege hautsi dezakezun, zeuk ikas dezazun.*

Lege eta aginduekin bezalaxe gertatzen da adierazpen arruntekin ere. Baieztapen askoren helburu bakarra kontrakoa gerta dadin bideratzea da. Demagun bihartik aurrera Euskal Herrian bazkalostean “neuk ordainduko dut” aldarrikatzen duten guztiei “ados, abante, egizu” erantzuten zaiela, eta ez ohiko “ezta pentsatu ere, kendu paretik, nire txanda da”.

**7. Euskalduna beti gertu pagatzeko:**

- a) *Euskal Herrian pagatu nahi duen planta egiten du askok.*
- b) *euskaldunon izaera horrelakoxea da eta ezin da aldatu.*
- c) *pagatzen tematzea lelokeria hutsa da.*

## 2. ARIKETA

Hurrengo testuan belztutako testu zatiaren esanahiari buruzko galderak dituzu.  
Hiru aukeren artean erabaki zein den testuaren esanahiarekin ondoen egokitzen dena.

(8 puntu)

### Berrogeigarren aldiz

*Migel Zeberio*, musika kritikaria eta musikaria.  
berria, 2008-10-30

Berrogeigarren aldiz, gure artean ditugu, munduko bazterretatik gurera, **(8) ezin esan epelera**, etorriak; kantuarekin eta kanturako.

**(9) Gu, berriz, jada zain geundenok, koru musika egarri, gure entzuteko grina ezin aseaz**, lehiaketako gordintasun edo goxotasunei haginka eta hozka egiteko tematsu gaituzte.

**(10) Berrogei zenbaki potoloa iruditzen zait, ia nire bizitza osoa.** Konkurtso honek urte horietan guztietan markatu du bere tempo-a, haurtzarotik aldatzen ikusi ditudan hamaika gauzaren erakusle bihurtzeraino.

Berrogei urtez pairatu zuten diktadore tzarra gure aurreko belaunaldiak. **(11) Garai haien arratsean** gogotsu ekin zion herritar talde batek euskal musikagintza, euskarazko kanten sormena, oro har euskal kultura plazaratu eta zabalduko zuen jaialdia antolatzeari.

**(12) Harrigarria dirudi, hala nola, berrogei urteren bueltan** Tolosa bezalako herrixka batean, lehiaketa honek duen mundu mailako sona izatera nola irits daitekeen.

Berrogei urte horietan gure bizitzeko erak eta ohiturak askotxo aldatu dira. Hastapeneko Lehiaketa xume hark, gogoz eta goxotasunez antolatutakoak, gaur egungoarekin alde itzela du; herrikoia, erraza, hurbilekoa zela esan daiteke.

Aste honetan entzun ahal izango denetik, berriz, aipagarri izango lirateke beste adjektibo batzuk bederen; **(13) espezializatua, lehiakorra baina agian herritarren gehiengoarentzat astuna.**

**(8) ezin esan epelera** Zer esan nahi du?

- a) ez dagoela epel esaterik
- b) ezin dela epel esan
- c) hotz egiten duela

**(9) Gu, berriz, jada zain geundenok, koru musika egarri, gure entzuteko grina ezin aseaz, ...**

- a) egarri sentitzen dute koru musika entzutean.
- b) koru musika entzun nahi dute.
- c) zain daudenez, ezin dute egarria ase.

**(10) Berrogei zenbaki potoloa iruditzen zait, ia nire bizitza osoa.**

- a) berrogei urte bete ditu.
- b) haurtzaroko aldaketen erakusle bihurtu du bere burua.
- c) lehiaketa aldatzen ikusi du bizitzan zehar.

**(11) Garai haien arratsean ...**

- a) Frankismoaren azkenetan
- b) Frankoren diktadura amaitu eta berehala
- c) gogotsu, arratsaldeetan bilduta

**(12) berrogei urteren bueltan ...**

- a) berrogei urteren ostean
- b) duela berrogei urte
- c) azken berrogei urteotan

**(13) espezializatua, lehiakorra baina agian herritarren gehiengoarentzat astuna.**

- a) entzuleak irabazi ditu
- b) herritar gehienengandik urrundu egin da
- c) kalitatea galdu du

Beste berrogei urtez sona eta ospea jaso eta gordeko baditu, **(14) ezinbestekotzat hartzen dut** antzokiko atea herriari irekitzea; edukietan eta edukiak eskaintzeko eran, musikaren esparruan bizi ez direnen gozamenerako formulak eskaintzea. Horren zabalkuntzan komunikabideetara jotzea ere ez da aukera txarra. Joan den aste buruan, Tolosan eginiko sei metroko tarta erraldoiak oihartzun nabarmenagoa izan zuen, eta hori ez pentsa Lehiaketari buruz zer eta nola kontatu ez dagoelako denik. Haur, gaztetxo eta jende martxoso eta interesgarri ugarik hartuko du ostatu Gipuzkoan, Lehiaketaren aitzakian. Eskainiko duten espektakuluak, berriz, ezinbesteko du entzuleria, parez pareko jendea, eta, jakina, horrelakorik izatekotan, saldu egin behar produktua. Nori nabarmendu zaio azken egunetan irrati, telebista edo prentsa idatzian jaialdia? Hor gabiltzanok ere ez dugu oraino prentsa bulegorik aurkitu, ez eta bertako eta kanpotar kazetariei harrera egingo dien ezer ere. **(15) Beraz, aldarrikatu beharko da berrogei urteren ostean; Abesbatza Lehiaketa jalgi hadi plazara!**

**(14) ezinbestekotzat hartzen dut..**

- a) *behar-beharrezkoa delakoan nago.*
- b) *ezinezkoa dela deritzot.*
- c) *halabeharrezkoa iruditzen zait.*

**(15) Beraz, aldarrikatu beharko da berrogei urteren ostean; Abesbatza Lehiaketa jalgi hadi plazara!**

**Lehiaketa (k) ...**

- a) *antzokiko ateak beti zabalik eduki beharko lituzke.*
- b) *komunikabideetan presentzia handiagoa beharko luke.*
- c) *musikaren esparruan bizi ez direnen gozamenerako asmatu denez, herriko plazan egin behar lukete.*

**3. ARIKETA**

Hurrengo testuetako hutsuneak betetzeko ematen diren hiru aukeretatik esan zein den egokiena.  
(15 puntu)

**Adreilukada kulturari**

*Fredi Paia. berria, 2008-10-31*

Aste osoa igaro dut aurrekontuak prestatzen. Kulturaren ikerketan **\_\_16\_\_** egiten dugunok diru publikotik bizi gara, hemen **\_\_17\_\_** Txinan. Eta diru laguntzak eskatzeko sasoia da.

Ikerketa proiektu berriak eskatzen dizkigute, eta hasita daudenei **\_\_18\_\_** eman behar zaie. Biletaren aurretik dokumentazio lana dago, ostean sailkapena eta azkenik gizarteratzea. Etekin arin eta ikusgarrien gizartean, **\_\_19\_\_** da emaitzak ikusi arte urteetako lan isila eskatzen duten proiektuez berba egitea. **\_\_20\_\_**, metodologia baserriz baseri herriko aitita-amama eta neska-mutilzaharrengandik (sektore hori **\_\_21\_\_** garrantzitsua da) informazioa batzean oinarritzen bada. Gure gizarte

bluetooth-maniako depresiboan, bizimodu mespretxatu bateko gizaki afuntzionalak dira. Aldeanos!

Baina Europako **\_\_22\_\_** ikerlari garrantzitsuenak harrituta daude aldeano-ekin. Santimamiñeko kobazuloen **\_\_23\_\_** baserrietan, XIX. mendean batutako ipuinetako protagonistak, suzko zezen gorria eta mezarara ez **\_\_24\_\_** bahitzen zituen zaldia ziren, 1916. urtean auzoko ume batek, **\_\_25\_\_** jolasean, aurkitutako margoetan agertzen diren animalia berdinak, berberak ez badira. Margoen memoria galduta zegoen, ez, **\_\_26\_\_**, agertzen ziren irudiena. 18.000 urtetako kultur katea.

**16.**

- a) *saiatu*
- b) *behar*
- c) *neke*

**17.**

- a) *bai*
- b) *hala*
- c) *zein*

**18.**

- a) *segida*
- b) *sesioa*
- c) *sona*

**19.**

- a) *gaitza*
- b) *hutsa*
- c) *zuntza*

**20.**

- a) *Alegia*
- b) *Are gehiago*
- c) *Hain zuzen*

**21.**

- a) *erdizka*
- b) *nekez*
- c) *sano*

**22.**

- a) *kultur*
- b) *kulturako*
- c) *kulturazko*

**23**

- a) *inguru*
- b) *inguruan*
- c) *inguruko*

**24.**

- a) *zeturrenak*
- b) *zeudenak*
- c) *zihoazenak*

**25.**

- a) *ezkutatu*
- b) *ezkutatzen*
- c) *ezkutaketa*

**26.**

- a) *berriro*
- b) *ondoren*
- c) *ordea*

Gure herriaren etorkizun ekonomikoa kulturen oinarritutako produkzioan dagoela diote. Ikerketa berba modan dago. **27**, euskal kulturen sakontzeko finantzaketa murriztea izango **28** da krisiari aurre egiteko neurrietako bat. Dirutzak inbertituko dituzte krisia **29** dutenek guztia txikitu eta irabaziak izaten jarrai dezaten. Berba berriak asmatzen dituzte **30** egiten jarraitu ahal izateko.

**27.**

- a) *Izan ere*
- b) *Hortaz*
- c) *Ostera*

**28.**

- a) *berri*
- b) *omen*
- c) *ohi*

**29.**

- a) *ekoiztu*
- b) *eragin*
- c) *etekin*

**30.**

- a) *beti*
- b) *betiko*
- c) *betikoa*

## B atala: entzundakoaren ulermena

### 4. ARIKETA

Audioa BIRRITAN entzungo duzu.

Ematen diren hiru aukeretatik esan zein datorren entzundakoarekin bat.

(9 puntu)

*Euskadi Irratia, 2008*

**Patxi Baztarrika** Hizkuntza Politikarako Sailburuordeari egindako elkarrizketa entzungo duzu, Euskaraz funtzionatzen duten telefonoak direla eta.

**31- Bada urtebete euskarazko telefonoak...**

- a) eskuragarri ditugula.
- b) izateko hitzarmenak sinatu zirela.
- c) merkaturatu zirela.

**32- Euskarazko telefonoekiko konpromezua...**

- a) operadore eta fabrikatzaile guztiak hartu zuten.
- b) Jaurlaritzaren ekimena izan zen.
- c) gainontzeko hizkuntzekikoa bera izan zen.

**33- Jaurlaritzaren bultzada...izan da.**

- a) bereziki hizkuntza arlokoa
- b) batez ere ekonomikoa
- c) ehuneko hogeikoa

**34- Gaur egun telefono berrien ... euskaraz dira.**

- a) herena gutxi gorabehera
- b) erdia baino gehixeago
- c) ia ehuneko ehun

**35- Lankidetzak akordio honetan sektoreko enpresa ...**

- a) guztiak daude.
- b) bi falta dira.
- c) guztiak kanpotarrak dira.

**36- Marka eta gamari dagokienez,...**

- a) guzti-guztiak daude.
- b) gama altukoak baino ez daude.
- c) gehienbat gama baxukoak daude.

**37- Merkaturatzeaz gain enpresa hauek...**

- a) ez dute beste inolako konpromezurik hartu.
- b) euskara ikasteko erronka hartu dute.
- c) gainerako zerbitzuak euskaratuko dituzte.

**38- Enpresa hauek motibatu egingo dira herritarrek...**

- a) telefonoz euskaraz egiten badute.
- b) euskarazko telefonoa kontsumitzen badute.
- c) telefonoak erabiltzen badituzte.

**39- Patxi Baztarrikaren hitzetan, euskarazko telefonoa...**

- a) arazoak-arazo lortu da.
- b) mirari txiki bat izan da.
- c) lortzea bide erraza izan da.

**5. ARIKETA**

Audioa BIRRITAN entzungo duzu.

Ematen diren hiru aukeretatik esan zein datorren entzundakoarekin bat.

(11 puntu)

**Euskadi Irratia.** Amarauna saioa.

Berotasuna nola gorde kontatzen du **Kutxa espazioa**-ko Elena Rosalesek.

**40- Irratsaioa ... egin da.**

- a) negu gorrian
- b) asteburu zurian
- c) udazken bukaeran

**46- Materialetan beroenak ... dira.**

- a) kotoia eta linoa
- b) egunkariak eta papera
- c) egurra eta kortxoa

**41- Berotasuna mantentzeko ...**

- a) aire kapa bat behar dugu.
- b) airea martxan jarri behar da.
- c) airebidea behar dugu.

**47- Fibra sintetikoek ...**

- a) ez dute inolako onurarik.
- b) onura estetikoak dute, besteak beste.
- c) onura termikoa dute.

**42- Haizeak, ..., goraka egiten du.**

- a) berotzen denean
- b) hozten denean
- c) mugimenduan dagoenean

**48- Termobisio esperimentua...**

- a) kamara batean sartuta egiten da.
- b) telebista saio bat da.
- c) jendearen berotasuna ikusteko da.

**43- Edredoiak lumek txorienek bezala ...**

- a) aire gehiago hartzen dute.
- b) mitxelinak sortarazten dizkigute.
- c) gizendu egiten gaituzte.

**49- Berotasuna hobeto gordetzeko, orokorrean ... babestu behar dira.**

- a) burua eta lepoa
- b) oinak eta eskuak
- c) sorbalda eta bizkarra

**44- Gela bat berotu nahi dugunean ...**

- a) atea itxi egin behar dira.
- b) gortinek hotza kanporatzen dute.
- c) erradiadoreak leihoetatik urundu behar dira.

**50- Pertsona exotermikoak ... agertzen dira.**

- a) gorri-gorri
- b) urdin-urdin
- c) urdin-gorri

**45- Jantzietan fibra beroenak ... dira.**

- a) naturalak
- b) sintetikoak
- c) likrak

IZENA:

## C atala: idatzizko adierazpena

### 6. ARIKETA

Behean duzun egoera kontuan hartuta **gutuna edo e-maila** idatzi behar duzu. Eskumako koadroaren barruan dituzun **5 hizkuntz formak** erabili behar dituzu, zuk nahi duzun ordenan. Kontuan hartu nori idazten diozun eta idazlanak gutxienez **100 hitzekoa** izan behar duela.

(10 puntu)

#### Egoera:

Institutuan "Gazteak eta lana" izenburupean hitzaldi batzuk antolatu dituzue. Ikasle talde bat zarete, datorren urtean unibertsitatera joan behar duzue eta asko kezkatzen zaituzte gaiak. Beste ikastetxe batzuetatik ere jendea etor dadin nahi duzue. Idatzi eskutitz bat beste ikastetxe bateko ikasleei, jardunaldien berri emanez eta bertara gonbidatuz.

#### Erabili beharreko hizkuntz formak:

- etorriko bazinete...
- dezagun...
- Nolanahi ere,...
- edukitzearren
- berebiziko







IZENA:

## **Zirriborroa egiteko orria**